

Gipuzkoarren gehiengoa autobia- ren inguruko erreferendumaren alde

GITE-IPESek 1.200 bizilagunen artean eginiko inkesta baten arabera

GITE-IPES elkarteak buruturiko inkesta baten arabera, Gipuzkoako biztanleen ehuneko 68ak Gipuzkoa eta Nafarroa arteko garraiobidearen auzia erabakitzeke modu ona deritzo erreferendumari.

P.U. / DONOSTIA

Gipuzkoako biztanlegoaren gehiengoa erreferendumaren aldekoa da Irurtzun-Andoain Autobia-
ren auzian. Gipuzkoarren ehuneko 68ak Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko garraiobidearen etorkizuna erabakitzeko erreferendumari bide egokia deritzo. Datu hauek Erreferendumaren aldeko Ekimenaren Talde Eragileak eman zituen aditzera atzo. Datuok, Carlos Vilches soziologoaren zuzendaritzapean, IPES Ikerketarako Elkarrekin azaroaren 22an Gipuzkoako 1.200 pertsonaren artean eginiko inkestakoak dira. Sondea

egiteko aukeratuko metodoa telefonozko deiarena izan da, bere esparru geografikoa Gipuzkoa, eta bere unitateak 16 urtetako biztanlegoa. IPESen arabera, inkestaren konfiantza maila ehuneko 95,5koa da.

IPESen inkestaren arabera, partidu politiko guztien botoemalen artean erreferendumaren aldeko jarrerak nagusiak dira, baita abstentzionista eta botoa argitzen ez dutenen artean. Erreferendumaren aldeko apoiarik handiena HBko botoemalen artean eta botua emateko adina ez dutenen artean.

Bi galdera nagusi erabili dira telefono bidezko inkesta hau egitekoan. Lehena, honela zehazten zen: «Uste duzu erreferenduma Gipuzkoa eta Nafarroa arteko garraiobidearen arazoaren irtenbidea erabakitzeke modu ona dela?». Bigarrenak honela zioen: «Uste duzu Gipuzkoa-Nafarroa autobia Leitzaran bialara ebitatu behar duela?»

Lehenengo galderari baietzkoan ehuneko 68ak erantzun diote eta

✓ Irurtzun-Andoain autobia ikutzen duten lurraldeetan Leitzaran bialara ebitatzearen aldeko jarrera handiagoa da

ezezkoan ehuneko 14,2ak. Bigarren galderari dagokionez, gipuzkoarren 40,3ak Gipuzkoa-Nafarroa autobia Leitzarango bialara ebitatu behar duela uste du, beti IPESen inkestaren datuen arabera. Ehuneko 22,8ak ez duela ebitatu behar eta ehuneko 36,9ak ez du erantzuten. Araxeko korredoretik joango litzatekeen Lurraldea proiektu alternatiboa ezagutzen dutenen artean Leitzaran ebitatu behar delako ustea zabalduago dago.

Azkenik, beste zirkustantzia bat azpimarratu zuten Taldeko partaideek, hots, autobia-
ren trazado ofizialak ikutzen duen lurraldean, Leitzaran ebitatzearen aldeko jarrera hazten dela, ehuneko 55,1ra arte.


Alk zalantzak ditu Castilloren eta Irunberriko kasuen aurrean

Z. ZAMAKOLA / BILBO

Amnesty Internacional erakundeak (AI), bi txosten burutu zituen Irunberriko gertakizunak eta polizi agente batek Mikel Castillo hil zueneko aztertzeke, hiru hilabete behin Mendebaldeko Europari buruzko txosten nagusiaren baitan.

David Graham txostenen egile ingelesak azaldu zuenez, Irunberriko gertakizunetan, ustez ETAko kideak ziren bi lagun hil zirenean, «zalantzazkoa agertu zen egoera, Susana Arregik bi tiro bait zuen buruan eta Lizarralde ezohizko ur kopuru handia zuen gorputz barruan».

Era berean, Brahamek salatu egin zuen ikerketak izan zituen oztopoak. «Epailea Rubenache-kin —hiruretatik bizirik atera zen bakarra— hitz egitera zihoala poliziak arakatu egin zuen. Ondoren epailea eta gaixaren arteko elkar-
rizzeta grabatzen ahalegindu ziren eta azkenik goardiz zibil bat komunean izkutatuta harrapatu zuten», gaitzetsi zuen.



Jon Lizarralde.

Mikel Castilloren heriotzari dagokionez, Brahamek azaldu zuen argitu beharra dagoela zein tirabira mota egon zen bera eta poliziaren artean, eta batez ere ia armatua zegoen une horretan.


GALDEGAIA

Joseba Azkarraga

EGUNKARIA.— Narkotrafiko eta Euskal Herriko Goardia Zibilaren artean egon litezkeen harremanen ikerketetan, Madrilgo Fiskalia Nagusiak erakutsi duen jarrerak zer pentsarazten dizu? Ez al dago Goardia Zibila ikertzeke beldurrik edota beste edozer babesteko borondate-
rik?

JOSEBA AZKARRAGA.— Jarrera honekin susmoak areagotu besterik ez dira egiten. Norbaitek gizarte osoari informazioaren bat ezkatatu nahi dio eta nire iniziatibaz talde mistoak bultzatu dugun proposamenarekin horixe gelditu da argi. Fiskaliak ez du ikertzeke inolako interesik agertu eta horrek guk hainbat galdera egin nahi izatea bultzatu du.

Baieztapen honetatik bi gauza ondorioztatu daitezke: lehenik eta behin, jarrera honekin erabateko sinisgarritasun gabezia eragin dela Instituzioetan, eta bigarrenik, susmoak bertan dirauela adierazi behar da. Hala ere, ezin dut esan, norbait edo zerbait besbesten ari direla, ez dut



Joseba Azkarraga.

frogarik hori esateko, baina PSOE alderdiak gure ekimenak oztopatuz eta bereak bultzatuz, kezka handiak sortzen dizkigu, Parlamentuko dinamikaren kaltetarako bait doa. Hau honela, ez da onargarria Parlamentuko mahaiko sozialistek egin dutena, susmoak handitu ez daitezen informatzea besterik ez bait dago.

Bestalde, ez dut uste Goardia Zibila ikertzeari beldur zaionik baina egia da Instituzio batek beste ikertzeke asmorik ez duela aski frogatuta gelditu dela.

Lerro Artean



Idatzizko hitzak iraunkortasunarenezaugarria du. Lerro Artean izenburuko txoko honek, prentsa idatziaren errepaso egingo du, Euskal Herriaren zerikusia duten politika arloko albisteak, artikulak, informazioak eta egunkarietan zein aldizkarietan agertzen diren bestelako berezitasunak bildu asmoz. Egutero, hamar bat argitalpen irakurri ondoren, aniztasunaren erakusleho izan nahi du espazio honek, Euskal Herriko kontuetaz idazten den oro ezagutzeko lagungarri izan daitekeelakoan.

Bertako eta kanpoko egunkarietako batzoko edizioan bi gai nabarmendu ziren: EAJk eta EAK batzokiei buruz lorturiko akordioa eta Unai Paroten kontrako epaiketa. Bi gai, irakurketa anitz. Adibidez, egun-

Letra txikia

kari batzuk, EAJ eta EA arteko gobernu akordio baten posibilitatearekin lotu nahi izan dute batzokiei buruzko akordioa. *El Diario Vasco* egunkariak portadara eraman du gaia, «EAK eta EAJk ez dute beste itunik baztertzeko batzokien gerra ixtarakoan» titulatu. *Deiak* akeratutako argazkia berez adierazgarria da oso: bertan elkarri eskua ematen diote Larrañagak eta Egibarrek. Ondoa, Gasteizko Gobernua osatzeko negoziaketaren berri ematen zuen atzo Deia egunkariak, honako titularrarekin: «EAJk beste Gobernu alternatibak aztertuko ditu, PSOErekin blokeoak baldin badi-rau». Beste egunkariak ez dira aurturatu, titularrean bi auzien arteko lotura azpimarratzen, baina bai letra txikian.

Paroten kasuan ere oso titular ezberdinak antzeman daitezke. *Sud Ouest* egunkariak lehen orriko toki nagusian, honako hau dio: «Gehie-

nezko eskaera Paroten kontra Madril». Barneko orrialdeetan beste aspektu bat azpimarratu du, alegia, Parotek epailea errefusatzeko. Egunkari honek Parot eta epailearen arteko galde-erantzunen traskipzioa eskaintzen du, hizkuntz ezberdinen erabilera agerian jarritz. *El País* egunkariak gauza bera egin du eta hitzez hitz pasarte batzu transkribatu ditu, «Parot etarrak, ETA-Gobernua arteko negoziatzeko eskatu ondoren, epaiketa egotzia» titulupeko artikuluan. *Egin* egunkariak beste aspektu bat nabarmendu nahi izan du, alegia, Paroten euskalduntasuna.

Diarlo 16 egunkariak ez du gai honi buruzko nobedaderik eskaintzen, baina artikularen letra txikia irakurrita honako baieztapena irakur daiteke: «Verak joan den abuztuan ETA sondeatzea erabaki zuen, bi hilabetearen sueten tazitoaren aurreko aurrejarrera ezagutu asmoz».

PELLO URZELAI



LAGUN ARO
ASEGURUAK

Lan Kide Aurrezkia Taldekoa

Jaio berriari
egunon!